

b.1. BIDAIA LAGUNAK

> Joxeren bidaiak



- Garraiobideak

- Lurretik, zerutik eta uretatik

Helburuak

- Garraiobideen hiztegia ikastea.
- Garraiobideen hiztegia erabiltzea.
- Garraiobideak sailkatzea eta sailkatzen ikastea.

Prozedura

- Hiruko edo lauко taldeak egin.
- Talde bakoitzari banatu "A" eta "B" fitxak.
- Umeei lurretik, zerutik eta uretatik dabiltzan garraiobideak sailkatu behar dituztela azaldu:
 - Lehendabizi, "B" fitxako garraiobide guztiak margotu eta moztu.
 - Gero, garraiobideen sailkapena egin: zerutik dabiltzanak, lurretik dabiltzanak eta uretatik dabiltzanak.
 - "A" fitxan garraiobide bakoitza dagokion lekuan itsatsi.
- Denen artean zuzendu eta komentatu.